

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

7/2019 Foru Agindua, urtarrilaren 16koa, baimentzen duena Amaya Alfonso Aceboren behin-behineko izendapena, Gasteizko Udaleko kontuhartzaile orokorraren lanpostuan jarduteko 2019ko urtarrilaren 2tik 7ra arte

Gasteizko Udalak zerbitzu honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen baten beharra duela, adierazitako aldian Alfredo Barrio Gil udaleko kontuhartzaile orokorra ordezteko.

Horregatik, proposatu du udal horretako funtzionario Amaya Alfonso Aceboren behin-behineko izendapena egitea aldi horretarako.

128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik (128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, zeinaren bidez arautzen baita toki administrazio funtzionario estatu osorako gaikuntzadunen araubide juridikoa).

Kontuan hartu da Toki administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legeak (27/2013 Legea, abenduaren 27koa) 25. artikuluan xedatutakoa —Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legea (7/1985 Legea, apirilaren 2koa) aldatzen du 27/2013 lege horrek, 92.bis artikulua berria sartuta—, non finkatzen den toki korporazioetan aldi baterako halabeharrezko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz (52/1992 Foru Araua, Arabako Foru aldundiaren antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzkoa), eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Amaya Alfonso Acebo behin-behineko izendatzea, Gasteizko Udaleko kontuhartzaile orokorraren lanpostuari dagozkion eginkizunetan jardun dezan haren titularra kanpoan dagoen aldian, 2019ko urtarrilaren 2tik 7ra arte.

Bigarrena. Izendapenak aurreko apartatuan adierazitako epean baino ez du izango indarra.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Gasteizko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzari, bai eta berau ALHAOn argitaratzeko agintzea ere.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 16a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SAENZ